

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Nola erakarriko ditugu bezero berriak eta nola mantendu eta hazi araziko ditugu bezero horiek?

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko kanal ezberdinak aukeratu ditugu; lehen esan dugun bezala, alde batetik, gure denda, beste dendetan jarritako txartelak, irratiko iragarkiak eta telefono deiak, eta bestetik, web orria eta sare sozialak (Instagram, Facebook eta Twitter) dauzkagu.

Gure enpresa zerbitzuak eskaintzen dituen ezin dugu bezeroak mantendu ekitaldiak behin egiten direlako; baina, eskaintzen ditugun zerbitzuetan, argazkilaria dugu. Horregatik, argazkiz egindako produktuak dauzkagu baita argazkiak errebelatzeko aukera daukagu. Honela, bezeroak mantenduko ditugu eta bezero hauek bezero berriak ekar ditzazkete.